

<b>Irakasgaiaren izena</b>	<b>Kodea</b>	<b>Ikasturtea</b>
<b>IKERKETA METODOAK ETA TEKNIKAK</b>	<b>151305</b>	2021-2022
<b>Titulazioa</b>	<b>Maila</b>	<b>Seihilekoa</b>
Haur Hezkuntzako Gradua	1.	2.
<b>Irakasgai mota</b>	<b>ECTS Kredituak</b>	<b>Hizkuntza</b>
OINARRIZKO PRESTAKUNTZA	6	EUSKARA
<b>Irakaslea(k)</b>		
Maidier Huarte Abasolo		

### Justifikazioa

Gaur egungo irakasleok, hezkuntzaren prozesua hobeto ulertzeko, hezkuntzaren testuinguruak aztertzeko tresna ezberdinak ezagutu behar ditugu, datu esanguratsuak bilatzeko eta interpretatzeko.

Ikasgai honen bidez, ikasleek testuinguruaren arabera ikerketa tresna egokiak aukeratzen eta datuen artean esanguratsuenak bilatzen ikasiko dute. Horrez gain, datuen arabera erabaki egokiak proposatzen ikasiko dute.

### Aurrebaldintzak

Aurrebaldintzarik ez dago.

### Gaitasunak

#### Gaitasun orokorrak

- Talde lana, 1. Maila.**

Taldeko zereginetan aktiboki parte-hartzea eta konfiantza, zintzotasuna eta elkarlana sustatzea.

#### Berriazko gaitasunak

B.G.1. Gizarte Zientzietako eta bereziki, Hezkuntza ikerketako metodoak ulertzea

B.G.2. Metodo koantitatiboak eta koalitatiboak ezagutzea eta erabiltzea.

B.G.3. Ikerketa txostenak ulertzea eta gauzatzen jakitea

## Edukiak

1. Ikerketa prozesua
2. Ikerketa testuinguruan kokatzen
3. Ikerketaren diseinua
4. Datuen analisia eta ikerketa txostena

## Ikas-irakaskuntza estrategiak

Ikasgai honetan landuko diren konpetentziak honako jarduera hauen bitartez jorratuko dira.

- *Ikaslea testuinguruan kokatzen laguntzeko jarduerak.* Gelako eztabaiden bitartez, testu ezberdinen azterketen bitartez edo azaleratuko diren bestelako esperientzia esanguratsuen bitartez, ikasleak gaien kokatuko dira
- *Hausnarketarako jarduerak.* Jarduera hauek ikerlana aukeratzen laguntzeko, helburuak eta hauekin lotutako hipotesiak formulatzen laguntzeko, iturri bibliografiko egokiak aukeratzeko eta metodologia diseinu egokia aukeratzeko egingo dira.
- *Kontzeptualizaziorako jarduerak.* Irakurgai ezberdinen bitartez, gelako eztabaidaren bitartez eta irakaslearen azalpenen bitartez, ikaslea ikerketaren inguruko oinarri teorikoak eraikitzen joango da.
- *Esperimentazio aktiboa.* Ikasgai hau praktikoa da eta gelan landutako kontzeptuak ikerketa proposamen bat osatzeko erabiliko dira, bakarkako zein taldekako jardueretan.
- *Ebaluazio-jarduerak.* ikerketa proposamena ahoz eta idatziz aurkeztu beharko da eta irakasleak ebaluatuko du. Ikasleek beren lana eta ikaskideen talde-lana ebaluatuko dute.

## Ebaluazioa

**Ikasgaia gainditzeko ezinbestekoa da ebaluaketa item guztiak gainditzea.**

### Ebaluaziorako tresnak

- Ikasgaiaren zehar landutako kontzeptuetan sakontzeko jarduerak (%30) [banaka zein taldeka]
- Ikerketa proposamena. Atalez atal eraikiko da eta ikasleek tarteko feedbacka jasoko dute horretarako ezarritako datetan. Behin-betiko txostena, maiatzaren azken astean entregatuko da. [taldeka] (%30)
- Idatzizko froga (banaka) (%40)

### Hizkuntza maila.

Gainditzeko, ezinbestekoa izango da hizkuntza-maila egokia izatea. **Zuzentasun ortografiko eta gramatikala erakusten ez duten lanak ez dira irakurriko eta zuzenean joango dira hurrengo deialdira.**

## Plagioa

Lanean zehar **plagiorik antzeman ez gero** (beronen luzera edozein delarik ere), lanak ez du bestelako feedbackik jasoko eta **taldeak zuzenean joan beharko du ohiz kanpoko deialdira**.

**Ikasturte batetik bestera ez da kalifikaziorik gordeko** (ikasleek berriz egin beharko dituzte eskatutako lanak ikerketa proposamena eta azterketa finala).

## Dokumentazioa

Albert, M.J. (2007). *La investigación educativa. Claves teóricas*. Madrid: McGraw-Hill/ Interamericana de España.

Hernández-Sampieri, R. et al. (2017) *Fundamentos de investigación*. Ciudad de México: McGraw-Hill.

Juaristi, P. (2003). *Gizarte Ikerketarako Teknikak: Teoria eta adibideak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen zerbitzua.

[Hemen eskuragarri: <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pdf/USWEB035407.pdf>]

McMillan, J.H. & Schumacher, S. (2005). *Investigación Educativa. 5ª edición. Una introducción conceptual*. Madrid: Pearson Educación.

Hausnarketan laguntzeko erabiliko diren bestelako artikulak ALUDen bitartez egongo dira eskura.